



«UMILTASUNA, LANA ETA GOLA» ESKAINTZERA

Mikel Arruabarrena futbolari tolosarra Legia Varsoviatik (Polonia) Eibarrera etorri da, «etxeko beroaren» bila »6

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Igandea
2009-01-18**

VIIURTEA 1.606.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Haur eta gaztetxo asko gerturatu ziren, eta batik bat txakurrak eraman zituzten. N. URBIZU

BESTE URTE BETERAKO BEDEINKAPENA JASO DUTE ANIMALIEK

BERASTEGI San Anton egunaren harira, izen bera duen ermitan bildu ziren atzokoan herritar ugari, euren animaliekin batera 4

16.000 euro bildu dituzte Sahara eta Indiarako

TOLOSA Laskorain ikastolak antolatzen duen Merkatu Txikia arrakastatsua izan da aurten ere 7



Herenegungo kontzertuaren une bat, Leidorren. KLISK

Zuzeneko borobila eskaini du Bide Ertzean taldeak

TOLOSA Herenegun gauean jende ugari izan zen Leidorren tolosarren emanaldiaz gozatzen 4

PREST
m
MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

www.mondragon.edu/prest



Munduan zehar lan egiteko prest. MU, aurretik doan unibertsitatea.

Zapatakada merezi duen ororentzat



» Uzturretik

Iraitz Lizarraga

A maitu berri den 2008 urteak hainbat esaldi eta irudi esan-guratsu utzi dizkigu. Azken irudietako bat Bush jaunari botatako

zapatarena edo segun eta nondik begiratzen den, Bush jaunak abilitate handiz saihesten duen zapatarena: Nor ote protagonista? Bush? Zapata jaurti zuen kazeataria? Ez ba... Zapata! Eta honi utsiko diot 2008. urtea ondo itxi eta errematatzeko.

Honela bada, nire zapatakadatik beroena Bushi (baina oraingotan bete-betea asmatzekotan) eta mundu mailako mandatari handiei, euren zilborra eta poltsikoa soilik begiratzeko. Zapatakada ederra bankuei, geure diruarekin jolasten jarraitzeagatik; Zapataka-

da enpresa handiei, megasupermerkatuei eta multinazionaliei, gizakia produktu bihurtzen eta produktuak gizakiarentzat ezinbesteko bihurtzeko egin duten esfortzuagatik. Arma ekoizleei, kainoiei, bonbei, misilei, militarrei... zapatakada baino gehiago, zapatakada baino daitezela urrun.

AHTri, gas kutsakorrei, CFC-ari, gure planeta zabortege erraldoi bilakatu nahi dutenei zapatakada ekologikoa, alpargata ez-transgenikoa! Zapatakada artistikoa kultur arloko aurrekontuak gutxitu dituztenei, kultura globalizatu bat

saldu nahi digutenei, eta bereziki telebistari, reality-showei, kotilleo programei... Zapatakada Aita Saindua eta honen inguruko guztiei, euren mesedetan, XXI. mendean metafora bat errealitate dela defendatzen jarraitzeko muturra izateagatik. Zapatakada tratu-txarrei, torturari, arrazakeriari, edozein motatako biolentziari —nor bere buruarekiko barne—.

Zapatakada jefeari, ordu asko lan egin arazi, gutxi ordaindu eta egindako lana ez eskertzeagatik. Zapatakada, espero baino nota bajuagoa ipini zidan irakasle horri.

Zapatakada txozna xixtrin hartan hartutako azken kubatari, sekula izan dudan biharamunik latzena emateagatik. Zapatakada neguari, hotzez akabatzen nauelako.

Zapatakada, hain osti txarra duen horri, gauzak beste modubatera esanda ere ulertzen direlako eta azkenik, Zapatakada handiena neure buruari, 2008 urteko urtarilaren leian ipini nituen helburuen laurdena ere ez betetzeagatik; beti keja eta keja arituen, zapata eskuan hartu bai, baina jaurtizera ez ausartzeagatik.

A Argazki zaharrak



Herriko oroitzapenak liburura ekarriak argazkietan

IBARRA • Ibarako Kirol Elkarte. Elkartean Herrigintza (1966-2008) izeneko liburua aurkeztu dute aste honetan. 1966. urtean sortu zen elkarte, eta ordutik ekimen ugari egin dituzte. Hain zuzen ere, sortu zenetik dauden aktak eta argazkiak biltzea izan da liburu hau argitarat-

zeko helburua. Liburuan dauden argazkietako batzuk ikus daitezke goian: Goikoak 1975-1978 bildumakoak dira; ezkerrean behean, Sebas-i omenaldia egin ziotenekoa, eta eskubi-koak 77-78 bildumakoak dira. •IBARRAKO KIROL ELKARTEA, ELKARTEAN HERRIGINTZA (1966-2008)

H Hilberriak

PRONTXI OLARIAGA GOIRIZELAIA

(Pedro Insaustiren alarguna)

Herenegun hil zen, 94 urterekin, Elizako eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

-Goian bego-

Bere arima zuzendaria: Juan M^o Olaetxea; seme-alabak: Jose Ramon eta Maribel Zabaleta, Jesus eta Begoña Lasa, Pedro Angel eta Malen Etxegoien, Eli eta Blas Erkiatia; bilobak: Aritz, Leire, Iraki, Olatz, Mikel eta Arantza; Aitor, Iosu eta Arantza; Gorka eta Maialen, Leire eta Roger; anaia: Antonio; ilobak lehengusuak eta gainerako ahaideak. Haren animaren alde otoi: bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezela GAURI IGANDEA, eguerdiko HAMABIETAN Mikel Goiaingueraren parroki elizan, gorpua bertan dela egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

HELBIDEA: Leku-Eder etxea - Senpere auzoa
OHARRA: Gorpua Beasaingo GOIERRI BEILATOKIAN egongo da.



LAZKAO
2009ko urtarilaren 18a

BIXENTE ZUMETA IRAOLAGOITIA

2009ko urtarilaren 16an, 50 urte zituela

Zarazuko olatuetan biziko haiz gure artean

Eskuminak aitari eta Xaneli.

Aio, Bixen.



ZARAUTZ
2009ko urtarilaren 18a

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900
zerbitzu iraunkorra

BULEGOAK: Andoain · Donostia (Bellatokia) · Errenteria (Bellatokia) · Hernani (Bellatokia) · Lasarte (Bellatokia-Sulabea) · Pasaja Talosa (Bellatokia)

Z Zurea da hitza info

Bederatzi egun telefonorik gabe

Bidegoian » Elurtearen ondorioz telefono mugikorrek ez dute estaldurarik; ez da lehenengo aldia, gainera.

JOXE M. IZAGIRRE

Azken elurtea hasi zenetik gaur (2009/01/16) arte Euskaltel operadorearen mugikorrek ditugunok estaldurarik gabe gaude, naiz eta egun batzuk igaro diren elurtea bukatu denetik.

Azken elurtearekin errepikatutako arazo hau ez da berria, lehenago ere gertatu baita. Baina honela

ko matxura bat bederatzi egunez konpondu gabe egoteak harridura ezezik haserrea ere sortzen du bezeroengan.

Euskaltelek eta Vodafonek antena berdinak erabiltzen dituzte eta enpresa hauetako bezeroek arreta zenbakietara deitzen dutenean hitz egokiak jasotzen dituzten arren, arazoak konpontzeke jarraitzen du. Badirudi erantzunaren premiak eta konpaini hauek Bidanien duten bezero kopuruak erlazio zuzena dutela. Eta hau guztia aurrera omen doan herri baten gertatzen da, hori dioen gobernuak kudeatzen duen enpresa baten ardurapean.



Elur ugari bota zuen eskualdean, pasa den astean. ESTI EZEIZA

G Gutunak

Eroskiren zerbitzuari buruz

Abenduaren 29an Tolosako Eroskin indukziozko plaka eta labe bat enkargatu nituen, hauek aurrez ordainarazi zizkidatelarik (1.199 euro), hori baita beraien eskakizuna. Hil honen 9an oraindik ezin zidaten ziurtatu noiz izango nituen etxean, nahiz eta hauek beraien al-

mazenean egon. Hau ikusita dirua berreskuratu eta hasieratik egin behar nuena egin nuen, hau da, herriko denda txiki batean enkargatu (salneurri berdinean), hain zuzen ere, horrela hurrengo egunerako nahiz eta larunbata izan instalatuak nituen bi gauzak; hori bai, zentimo bat bera ere aurrez ordaindu gabe.

Ana Lopetegui. Tolosa.

@ Zurea da hitza. Zure inguruko berriak sartzeko aukera ematen dizu gure webguneak *Zurea da hitza* izeneko atalean. Horretarako, *zurea da hitza* izeneko atalean sartu behar duzu, eta bertan sar dezakezu berria edo eskualdeari buruz esateko duzuna. Berriaz gain, argazkiak ere sartzeko aukera baduzu. Albiste sartzaz gain, zure datuak sartzeari gomendatzen dugu, jaso ostean zurekin harremanetan jarri behar izango bagenu, beharrezkoa delako:

www.tolosaldeko-hitza.info

Gureak ere badira adingabe hauek

» **Iritzia**

Anna Stern
SOS Arrazakeria

Bakarrik dauden atzerritar adingabeen egoerak gogoetarako bidea ematen dio herritar gehienei. Urrutitik datorren fenomeno den arren, gertutik bizitzea egokitzen zaigu, gugandik gertu baitaude gazte hauek hartzen dituzten zentroak. Bizilagun bezala, merkatari bezala, edota guraso, hezitzaile... gauza da gazte hauengatik jasotzen dugun irudia normalean segurtasun eza eta gatazkaren bidetik doala. Ez ditugu gurerekin nahi, ez dira guturrak.

Noski, inguratzen gaituen errealitateaz dugun sentsazioa egoera edo gertakizun zehatz batzuek bultzatzen dute. Ezin dugu ukatu aurten gertaera tamalgarriak izan direla; baina, aldi berean, ezin dugu ukatu komunikabideen aldetik bideratzen diren etengabeko erasoak, izan ere, hauengatik adin-

gabe hauekiko gure beldurrak handitu baino ez dira egiten, gaizkile eta atzerritar bezala definituak izaten direlako.

Gatazka eta gizarte tentsioz jositako testuinguru honetatik, SOS Arrazakeriak atsedaldi bat hartzea proposatzen dugu. Ez maletakegin eta hanka egiteko. Ez. Arazo urrunetik ikusi eta aztertu, eta inguratzen gaituena era eraikitzaileago batean ikusteko, baizik. Horregatik antolatu dugu erakusketa, gazte adingabe hauen errealitatea gertutik ezagutzeko, argazkien bidez, lekukotasunekin eta prentsa-aren titularrekin.

Gureak ere badira adingabe horiek Tolosan egongo da hilaren 28ra arte; Kultur Etxean izango da lehendabizi gaur arte, eta hilaren 20tik, hau da, etzitik aurrera, Errota Haur Liburutegian izango da. Erakusketa ikusteaz gain, herritar guztiak gonbidatzen ditugu gidaturiko bisitak egitera. Pasa den ostiralean egin zuten bat, eta hurrengo hilaren 23an, datorren ostira-

lean egiteko aukera izango da. 19:00etatik aurrera izango da, eta adingabeak izango dira euren esperientzia kontatuko dutenak.

Barneko eztabaida bultzatu nahi dugu, gertatzen ari diren egoerak ez errepikatzeko. Adingabe hauek errudun bakar bezala hartzeak ez gaitu inora eramaten. Nondik datoz? Zergatik datoz hona? Nola bizi dira? Zer moduzko tratua jasotzen dute? ... hainbat arrasto eman diezaguketen galderak dira.

Noski, guztiak ez dira gaizkileak, eta guztiak ez dute disolbentza kontsumitzen, eta ez dituzte denek buruko arazoak. Eta, noski, asko ikasi dezakegu eurengatik, bizirauteko duten izpirituarengatik, eusteko duten gaitasunarengatik, eta bizitza hobetzeko lortzeko jasan behar izan duten guztiarengatik gurera etortzeko bidai lizean. Baina, badira egitea merezi duten galderak: onartuko al genuke bertako gazteak atzerritako egoera berean egotea?



Euskararekin ahazten ari al gara?

TOLOSA » Alondegiko aparkalekuen bulegoa Fronton kafetegiarene ondoan kokaturik dago, txurreriaren alboan, hain justu. Kanpoan jarri duten kartelak argi uzten du bertan dagoela bulegoa; argi geratzen dena,

ordea, beste gauza bat da: kartel hori egin zuenak ez zuela oso ondo egin. Gaztelatik euskarara itzultzerakoan ez zuen asmatu. Egunduko igarotza, gainera, jarri zutenetik. Udaletxean ez al inor konturatu?

Iragarki laburrak

ALOKAIRUAN

■ **Tolosa.** Etxebizitza alokairuan Tolosan. Behean pisua gehi txapitula. Berogailuarekin. 550 euro hilabetean. Interesa dutenek deitu 669 93 99 43 telefono zenbakira.

LANA

■ **Zegama.** Gauetan zainketak egiteko prest. Euskalduna. Esperientzia eta kotxea. Interesatuek ondo-

rengo telefono zenbakira deitu behar dute: 646 62 16 77.

■ **Etxetik.** Gipuzkoan edo inguruko enpresa batentzako etxetik lan egingo nuke, mota desberdinetako eskulanetan. Interesatuek deitu 639 43 38 43 telefono zenbakira.

■ **Iturgina.** Iturgin lanetarako pertsona bat behar da. Interesatuek deitu ondorengo zenbakira: 656 41 68 08.



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Atzo Berastegiko San Anton ermitan San Anton eguna gogoratu eta ospatu zuten; aurten gehienbat txakurrak izan dira kanpoaldean apaizaren bedeinkapena jasotzeko eta, batez ere, haur eta gaztetxo asko bildu ziren larunbata izatearekin.

Animalia guztiak bedeinkapenaren zain

NEREA URBIZU

Baserri eta etxeetako animalia kuttunenak Berastegiko San Anton basilizara hurbildu zituzten atzo. San Anton eguna zen eta urteak daramatzate egun hau bertan gogoratzen. Haur eta gaztetxo asko bildu ziren.

Bufoi bat eraman zuten, bi behor dotore, artzain alemaniar bat, ardi txakurrak, txakur txikiak, golden retrieber horixka bat eta beltz txiki bat (*Potto*), untxiren bat, txerrikumetxo bat, kanarioren bat... Denetik pixka bat elkartu ziren atzo. Xabier Iturrioz apaiz gazteak denei bedeinkapena eman zien.

Lagun ardi txakurra lehen aldiz joan da horretara, izan ere hiru hilabete dauzka. Urduri xamar zegoen, ondoko txakurrekin jolastu

nahi zuelako, *Pottorekin* gehienbat, hain zuzen. *Potto* txikiak begi bat gorrituta zeukan, hesi batekin istriputxo bat izan baitzuen. «Ea ba, bedeinkapenarekin sendatzen den»...

Beste batzuentzat ez zen lehenengo urtea basilizaren kanpoaldean, batez ere urte batzuk zituztenek. Zain egotearena badakite zer den eta txintxo-txintxo egon ziren.

Ondoren, hamaiketakoa

Bedeinkapenaren ondoren, hamaiketakoa izan zen kanpoaldean. Fresko egiten zuten, baina eguzki izpi batzuk noizbehinka goxotzen zuten basilizaren aurrealdea. Patata-tortilla izan zen besteen artean, dastatzeko.



Animaliek bedeinkapena jaso ondoren ohiko hamaiketakoa egin zuten. Askok eskertu zuten. N.U.



'Lagun'-i kostatu zitzaion bedeinkapenaren zain egotea... N.U.



Haur eta gazte asko joan ziren, larunbata izatearekin errazago. Askok txakurrak eraman zituzten. N.U.

Detalle guztiak kontuan hartuta, saio txukuna

Tolosa » Bide Ertzean taldeak 10 urte bete ditu eta CD-DVD bat osatzen ari dira; Leidorreko zuzeneko ere agertuko da.

ERREDAKZIOA

Leidor antzokia ia lepo, 22:00ak pasatxo, tresnak eskenatokiaren gainean, atzera garamatzen lanpara intimoak, moketa dotore bat espreski kontzertu honetarako... Dena prest, eta ikusleak Bide Ertzean taularatzeko zain.

Karlos Aranzegi, Fran Iturbe, Joserra Senperena, Imanol Ubeda eta Joni Ubeda azaldu zirenetan euren 10 urteetan sortu duten guztia- ren laburpen bat (zaila da dena ordu eta erdi batean sartzea) egin zuten. Kaleratu dituzten sei disko- etako kantuak jo zituzten eta berri bat ere entzuteko aukera izan zuten bertaratutako zirenek: *Graffiti*, hain zuzen. Kantuak aurreko diskoetan aurki ditzakegu, baina herenegun



Leidor antzokiko eskenatokiari ukitu intimoagoa eman zioten, indar gutxiko argiekin batez ere. K.USK

gauean entzun ahal izan zirenean ez zuten berdin sonatu, alegia, konponketa berriak egin zituzten espreski saio horretarako. Kantu akustiko askok, adibidez, soinu elektrikoagoak izan zituzten. Horrez gain, Joserra Senperenaren behatzek abesti guztietan hartu zuten parte, koladun pianoaren gainean batzuetan, hammond-aren gainean bestetan.

Hitz batean; zaindua, landua. Eszenaratze landua ikusi ahal izan zen Leidorren, detalle guztiak kontuan hartuta. Soinuaren kalitate garbia izan zen, Kaki Arkarazoren gidaritzapean batez ere. Denek ere lana egin dutela erakutsi zuten herenegungo kontzertuak. Abestiei proiektzioak ere gehitu behar zaizkie: intimoa izan zen momentu batzuetan ere.

Lana egin denetan langileak-artistak nolabaiteko ardura handiago bat dauka bere gain: emaitza onak nahi izaten dira. Hauek lortu dutelakoan nago... Gerokoak CD-DVDan ikusi beharko.

«Egoera oso zaila da, baina zer egingo diogu ba? lanean jarraitu»

Tolosa » SOS Arrazakeriak jarritako erakusketaren harira, gazte magrebtarren egoera ezagutzeko aukera izan zen herenegun.

REBEKA CALVO

Usurbilen hezitzaileen babes duen etxe bateko lau gazte magrebtar gerturatu ziren herenegun Tolosako Kultur Etxera. Kolore Guztiak izeneko talde ia sortu berriko hezitzaileekin batera gerturatu ziren gurera, izan ere bertan SOS Arrazakeriak *Geureak ere badira adingabe horiek* erakusketa jarri du eta hori ikustearekin batera euren bizipenen berri eman nahi zieten gerturatzen zirenei. Ez zen jende gehiegi hurbildu, baina bertaratu zirenek benetako interesa agertu zuten.

Bertaratu ziren lau gazte aipatu Usurbilgo etxean daude beste bi gazterekin batera, kasu honetan ez dira adintxikikoak, 18 eta 21 urte bitarte baituztuzte, «bigarren pausoa eman dute gazte hauek», esan zuten zentzu honetan hezitzailetako batek. «Bigarren pausoa»

egon arren zailtasun asko aurkitzen dituzte gazteek bizimodu «normala» egiteko. «Gure egoera oso zaila da, nik pila bat tailer egin ditut, titulu asko ditut, baina inork ez ditlanik eskaini nahi. Zer egingo diogu ba? lanean jarraitu», argitu zuen gazteetako batek. Gazte honen egoera bere etxekideekiko desberdina da, hala ere, jada 18 urteak beteak zituela iritsi zen hona eta honek, gainera, bere egoera gogortu du. «2008ko abuztutik dago hemen eta ez ditu beste gazte adingabeen aukera berak. Oraintxe Martutenen ari da igeltsero ikastaroa egiten. Baina lana lortzeko arazo asko izango ditu, muga handiak, bai Administrazioaren eskutik, lehen oztopoak jartzen ditu eta, eta baita gizartearen, jendearen, eskutik ere», agertu zuen hezitzailetako batek.

Lau gazte hauek lanerako gogotsu daudela agertu zuten, egoera latza izan arren, hona lanera etorri direla argitu zuten eta batez ere hauxe aldarrikatu nahi izan zuten: «Gure artean, hemengo jendearen artean bezala, aldeak daude. Denak ez gara berdinak. Aukera bat merezi dugula uste dugu».



Erakusketa ikusi eta gero han zeuden guztiak bildu eta solasaldia izan zen Kultur Etxean. R.CALVO



Usurbildik gerturatutako gazteek harretaz begiratu zituzten erakusketan aurkitutako argazki eta bestelakoak. R.CALVO



Sinadura ugari D3Mren alde

TOLOSA » Eskualdeko herrietan bezalaxe Tolosa ere Demokrazia 3 Milioi plataformaren aldeko sinadura bilketa egiten aritu ziren atzo goizean Udaletxean. Egun hauetan jende asko hurbildu dela esan dute eta orain arteko martxa ikusita datorren martxoaren 1eko hauteskundeetan parte hartzeko adina sinadura bilduko dutela espero dute. Datorren asteartean ere egongo da aukera udaletxean sinatzeko, 08:00etatik 11:00etara. Ostegunean, gainera, arratsaldean ere sinatu ahal izango dela argitu dute; 18:30etik 20:30era. R.CALVO



Euskadiko Kluben artekoan hiru garaipen

TOLOSA » Atzo goizean Tolosako Beotibar pilotalekuan Euskadiko Kluben arteko pilota Txapelketako lau partida jokatu zituzten Aurrera-Saiatz pilota eskolakoek. Bertan hiru garaipen eskuratu zituzten. Sukia jubenilak Markinakoaren kontra 22-16 irabazi zuen; Albi-suk 22-4 Errekakoaren kontra; 22-13 galdu zuen Koldo Galarraga seniorrak Lemoakoaren aurka eta 22-5 irabazi zuen 22 urtez azpikoaren artekoan Apezetxea-Zubirik Zaramagako bikotearen kontra. Irudian, Sukia jubenila, urdinez. N.URBIZU



Mikel Arruabarrena tolosarra, lasai ederrean, Tolosako kiroldegiko kafetegian; Poloniako gorabeherak ahaztuta, gustura dago etxean. GARI GARAIALDE/ARP

«Umiltasuna, lana eta gola». Hiru hitz horiek esan ditu Mikel Arruabarrenak, Eibarri zer emango dion galdetuta. Poloniatik etorri da, «etxeko beroaren» beharrean baitzegoen.

Tolosako Ibrahimovitz

UNAI ZUBELDIA (BERRIA)

Ibrahimovitz gustatzen zait niri asko, Milango Interreko aurrelaria. Jokalari horri jarraitzen diot gehien». Mikel Arruabarrena Legia Varsoviatik (Polonia) Eibarrera utzita iritsi den aurrelariaren hitzak dira. 1.88 metro da luze, Interreko aurrelaria baino lau zentimetro baxuagoa; suediarrek baino kilo bat gutxiago dauka tolosarrak; biak aurrelariak, hura izaera gogorrekoa, tolosarra umila, lasaia; hark zakua golez ondo beteta dauka dagoeneko, eta Arruabarrena ari da pixkanaka betetzen... Tolosako Ibrahimovitz fitxatu du Eibarrek, edo Athleticen Fernando Llorente. «Bilbao Athleticen Llorenterekin jokatzeko zortea izan nuen, eta pozgarria da orain hain ondo ari dela ikuste».

Polonia eta poloniera ahaztuta, etxeko epelera etorri da Arruabarrena. Ia egunero hitz egiten du Legiako arduradunekin eta hango taldekiekin. «Eta oso ondo nagoela esaten diet nik». Aurpegian ere nabari zaio. «Egunero egiten dut Tolosatik Eibarrerako joan-etorria, eta oso eroso sentitzen naiz». Aita izan du umetatik ondondoan, eta orain ere aita dago ia-ia bera baino gusturago, semea etxean ikusita.

Tolosan hasi, Athleticen harrobian hazi -«asko ikasi nuen Bilboko sei denboraldietan», Osasuna B-n lehen taldera igotzeko jauzia gertu ikusi, Xerez eta Tenerife oso talde indartsuen mailarekin zaildu, eta Jan Urban Osasunako jokalari ohien telefono deia erantzunda joan zen Polonia alde-ara, Legia Varsoviara. «Azken bi ur-

reetan jaso dut Urbanen deia, Tenerife-ra joan baino lehen eta denboraldi honetan, eta ilusio handiarekin joan nintzen». Baina egoera nahi baino gehiago okertu zaio Polonia aldean. «Atzerritarra naiz han, eta atzerritar onak nahi izaten dituzte hango zaleek. Nik, ordea, ez nuen jokatzeko aukera askorik eduki».

Berari buruzko hitz gogorrenak foro edo eztabaidagune bateko kontuak direla argitu du. «Eztabaidaguneetan nahi duenak nahi duena idazten du, komeni zaiona. Baina ni lasai nago, ez baitut jokatzeko aukera askorik izan. Badakit Athleticen, Osasunan, Xerez, Tenerife... ondo lan egin dudala, orain ere taldea aurkitu baitut. Zer edo zer ona edukiko dut, ezta?».

Iritsi berritan, Poloniako komunikabideetan ere «gezur asko» esan omen zituzten bere soldatarik buruz. «Soldatarik handiena zuen jokalaria nintzela esaten hasi zi-



«Eztabaidak ahaztuta, minutu bila etorri naiz Eibarrera, aukera bila, jokatzera, gozatzer»

MIKEL ARRUABARRENA
Futbolaria

ren. Kopuru batzuk eman zituzten, eta ez ziren benetakoak. Horrek jendea nire aurka jarri zuen. Baina taldean bazeuden, gutxienez, nirea baino soldata altuagoa zeukatzen hamar jokalarik». Ifiak Deskarga Levanteko jokalari ohia-ri ere antzekoa gertatu zaiola gaineratu du Arruabarrenak, eta hainbestean etsi du. «Taldekideen aurka ezin dugu ezer esan, azalpen eske hasiko baitira».

Baina, ika-mikak alboratuta, argituz du Eibarrera ez dela etorri Poloniako gorabeherak ahaztera. «Minutu bila etorri naiz, aukera bila; jokatzera, gozatzer». Eta ez da damutu Poloniara joan izanaz. «Oso esperientzia polita izan da. Sei hilabete pasa ditut han, eta momentu onak eta txarrak izan dira tartean. Bakarrrik nengoan, jokatu gabe, beste ohitura, hizkuntza eta janari batzuekin... Baina nik aukeratu nuen bide hori hartzea».

Zaleei denbora eskatu die

Eibarrera etorrita, ez dauka beldurrik, orain arteko taldeetan golak sartu baititu. «Sasoian jarri eta jokatzeko hasteko gogoia daukat, partidak jokatu ahal hartuko ditut konfiantza. Eskertuko nuke jendeak ulertzea bi-hiru entrenamendu besterik ez ditudala egin oraindik eta kosta egingo zaidala taldean sartzea».

Izan ere, ia hilabete pasa du gel-dirik, eta fisikoki ez dago bete-be-tetan. «Lehengo asteo entrenamenduekin giharretan mina sentitzen nuen, baina berehala jarriko naiz sasoi batean». Horixe da Carlos Pouso entrenatzailearen asmoa ere. Iganetan, Gironaren aur-

kako partidari, debuta egiteko aukera eman zion, pixkanaka taldera egokitzen hasteko. «Sartzerako bukatu egin zen partida, baina pare bat aukera eduki nuen, eta ikusten da Eibar aurkariaren areara iristen dela». Pousok gauzak argi utzi omen dizkio. «Lasai lan egiteko esan dit, jokalarik bat gehiago naizela eta gogor entrenatzeko. Neure buruari presiorik ez jartzeko esan dit». Eta eskertzekoa da entrenatzailearen jarrera.

Horixe baitu aurka Arruabarrenak, «komunikabideen presioa». Badaki azken asteotan asko hitz egin dela berari buruz, eta haserre puntu batekin dago. Hamar gol gora, hamar gol behera. «Aurkezpenean ez nuen halakorik hitzeman. Eibarrek 14 gol sartu ditu orain arte eta nola hitzemango ditut ba nik 10! 'Oxala hamar sartzea', hori esan nuen, besterik ez».

Sei hilabete egingo ditu Eibarran, eta ekainean aldaketarik ezean Poloniara itzuli beharko duela badakien arren, ez dago egun horri

» NORTASUN AGIRIA

- **Izena.** Mikel Arruabarrena.
- **Jaioteguna.** 1983ko otsailaren 9a.
- **Jaiotekoa.** Tolosa.
- **Garaiera.** 1,88 metro.
- **Pisua.** 83 kilo.
- **Postua.** Aurrelaria.
- **Ilbilidea.** Tolosa (2002ra arte), Baskonia (2002-2003), Bilbao Athletic (2003-2005), Osasuna B (2005-2006), Xerez (2006-2007), Tenerife (2007-2008), Legia Varsovia (2008) eta Eibar (2009ko ekainera arte).


begira. «Eibarko jokalaria naiz, eta saikapenean gora egitea bakarrrik daukat buruan. Bi urte daramatzat etxetik kanpo, eta hona inguratzeko gogoia neukan, familiaren ondoren egoteko. Aukera polita da niretzat, eta izugarritzeko gogoia daukat».

Aldagela, futbola bizitzeko modua, bidaiak... den-dena desberdina omen da Eibarran. «Xerez eta Tenerife ere egon naiz, eta Eibar oso talde berezia da. Normaltasun handia dago hemen. Denen arteko harremana oso ona da, eta lehenengo egunetik bertatik egokituta nagoela uste dut». Egokitzapenaren azalpenak ematen hastearik batera irten da hizkuntzaren gaia. «Ingeles ez ondo ere ez dakit, baina...». Polonian are okerrago moldatzen dira ingelesarekin.

Hori da arazoa. «Han polonieraz hitz egiten dute». Eskerrak Euskal Herriko beste hiru taldekideekin egon den han. Lehen egun haietan ez zuela oso ondo pasa onartu baitu. «Bakar-bakarrrik, inorekin ezin hitz egin... Taldekideekin hitz egiteko gaiez zareneari ez da erraza pentsatzen duzuna azaltzea».

Orain ulertzen du «Realera-eta» etorri diren atzerritar askok baitzuetan urtebete behar izatea egokitzeko. «Lehen pentsatzen nuen futbolean leku guztietan 22 jokalarik baloaren atzetik ibiltzen zirela. Baina ez, ez. Hitz egiteko inor ez daukazunean oso zaila da egokitzea». Futbol jokalariek ere pertsonak direla, aurrera.

Umila da Arruabarrena, eta zaleei ez die beste munduko ezer eskatu. «Taldeen ondoan jarrai dezatela, anima dezatela, joan daitezela zelaira, taldeak etxean gauza politak egingo dituela iruditzen baitzait. Goza dezatela».



Beteluko Udala

IRAGARKIA

Beteluko Udalak, "Betelu" taberna-jate-txer-ostaua zerbitzuaren kudeaketa, kontratatzeko deialdia egiten du.

Xedea: Beteluko Nagusi Kalean, 7. helbidean dagoen "Betelu" taberna-jate-txer-ostaua zerbitzuaren kudeaketa, errentamendu-kontratuaren bitartez, Zerbitzuak, Nagusi kalean 7. esk. helbidean dagoen etxebizitza bat osatzen du ere bai.

Prozedura eta esleitzeko modua: Prozedura irekia, eskaintza onuragarria zein den zehazteko onartuko irizpideen arabera.

Aurrekontua: 17.400 euro, B.E.Z. barme.

Egitako epea: Hamabost urte. Epea luza daiteke ados egonez gero.

Aurkeztu beharreko agiririk: Klausula Administratibo Partikularren pleguan agertzen direnak.

Proposamenen aurkezpena: 2009ko urtarrilaren 29a baino lehen (barne) Klausula Administratiboaren Plegua interesatuen eskura dago, Beteluko Udalko Idazkaritzan, (Antigua Kalea, 5, Telefonoa 948-510-3011, 12:30etatik 14:30etara ordutegian).

Halaber, internetetik jeitsi daiteke, Nafarroako Kontratazio Aterki web orrian:

<http://www.navarra.es/home/es/Catalogo+de+servicios/Portal+contrataciones/>

Betelun, 2009ko urtarrilaren 10ean.
Alkatea, Miguel Javier Recalde Goldaraz

16.000 eurotik gora bildu ditu aurten Laskorainek Merkatu Txikian

Elkartasuna » Ibarrik Misio Taldeak, Tolosaldea Sahararekin elkarteak eta Emaus Fundazioak bideratuko dute laguntza.

ERREDAKZIOA

Beste urte batez, Laskorain ikastolako Merkatu Txikia «arrakastatsua» izan da eta antolatzaileak oso gustura daude bildutakoarekin.

Laskorain ikastolak Ibarrik misio taldea, Tolosaldea Sahararekin elkarte eta Tolosako Udaleko Gizarte Zerbitzuaren laguntzarekin jarri zuen martxan Gabonetako Merkatu Txikia. «Aurten ere Merkatuak erantzun bikaina jaso duela nabarmendu beharrean gaude», adierazi dute ikastolako pedagogia batzordekoek balorazio egiterako uanean.

Bertan salgai egon ziren jantziak, jostailuak, altzariak, tresnak, «ikastolako guraso, dendarri eta gainerako herritarren esku zabaltasunari esker» izan zirela ere gorai patu nahi izan dute «eta urtez urte ekimen honek jasotzen duen erantzuna azpimarragarria iruditzen zaigu», gaineratu. Ikastolako arduradunek, emaitzak emaitza, guztien laguntza eskertu nahi izan dute: «Gure esker ona modu batean zein bestean ekimen honetan parte hartu duzuen guztioi».

«Benetan pozgarritzat» jo dute antolatzaileek Emaus Fundazioak, bazterketaren aurka burutzen duen proiektua, eta Tolosaldea Sahararekin eta Ibarrik misio taldeek dituzten asmoak ezagutzeko eta zabaltzeko antolatzerik ekin zuten jaso duten atxikimendua eta erantzun ona. Izan ere, honi esker ehunka gaztek, gurasok, familiak eta herritarrek, azken urte hauetan, ezagutu ahal izan dute hainbat jende bizi duen gizarte bazterketa, bai urrutian eta ez oso urrutian.

Ildo honetan, «egoera horiek leuntzeko eskuera dugun aukera eta herritarren artean zabaldu nahi dugun konpromisoa ezagutzera eman» dutela diote Laskorain ikastolakoek. «Ziur gaude eki-



Denetarik izan zen aukeran Merkatu Txikian; herritarren erantzuna «oso ona» izan dela gorai patu dute. ESTI EZEIZA

men xume hauen bidez elkartasunezko gizartearen alde ari garela eta jarraipena izan dezan merezi duela. Kampania amaitu da, baina egitekoak egunerokotasunean hor dirau».

Hainbat datu

Merkatu Txikia aurrera eramatea posible egiteko lan handia dago atzetik. Antolatzaileek argitu dutenez, «aurtengo ekitaldiko parte hartzea oso zabala izan da». Hona hemen horren adierazle datu batzuk: guztira 155 dendarik hartu dute parte; arduradun gisa, hamabi egunetan zehar, 80 guraso, irakasle eta ikasle ohi aritu dira eta laguntzen 156 ikasle. (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza 3-4 eta Batxilergo 1-2).

Merkatu Txikiaren helburua ekonomikoki etekina ateratzea da, baita elkartasuna sustatzea da ere. Helburu nagusia ekonomikoa ez bazen ere, honek ere oso erantzun ona izan du eta 16.000 euro baino gehiago lortu dituzte. Diru

SAHARARENTZAT «EA IKASTOLAN 1.000 KILO LORTZEN DITUGUN»

Urtero bezala, eskualdeko Tolosaldea Sahararekin elkarteak *Piztu itxaropena* lelopean sahararrei laguntzeko janari bilketa abiarazi dute. Urtarrilaren 31ra arte azukrea, arroza, dilistak, hegalaueza eta konpresak emateko aukera dago. Elkartetik aurreko urtean jasotako kopurua berdindu nahi dute behintzat, beraz, gutxienez 10.000 kilo jasotzea da aurten jarri duten helburua. Ikastolan ere euren erroka gainditu nahi dute, *Ikasle bat, gutxienez kilo bat* lelopean «ea Ikastolan 1.000 kilo lortzen ditugun».

Elkarteko kideek Tolosaldeko biztanle guztiak proiektu honetan parte har hartzera gonbidatzen dituzte, «bakoitzak kilo bat emanez gutxienez 10.000 kiloko erroka erraz beteko dugulako». Halaber eskerrak eman nahi dizkie guztiei aurrez.

Urtarrilaren 31tik aurrera, bildutakoa gainerako eskualdeetakoarekin bateratu eta saharar errefuxiatuen kanpalekuetara bidaliko dute otsailaren kamioietan. Horretarako, bigarren eskuko kamioiak erosi behar izaten dituzte eta eskualdeko udaletxe guztiei eta diruz lagundu nahi duten guztiei, dei egin nahi die Tolosaldea Sahararekin elkarteak. Euskadiko Kutxako 3035 0080 94 0800054177 kontu korronte zenbakian egin dezake nahi duen herritar orok diru laguntza.

hau guztia eta saldu gabe gelditu zen guztia Emaus Fundazioaren, Ibarrik misio taldea eta Tolosaldea Sahararekin taldeen esku geratu da, hauek baztertuekin orain arteko lana eginez jarrai dezaten.

Datu positibo hauek direla eta berriro ere eskerrak eman dituzte behi eta berriz. «Honegatik guzti-gatik, zuzenean edo zeharka parte hartu duzuen guztioi eskerrak, berriro ere.

Berrikuntza ugari izan ziren atzoko azokako protagonista nagusiak

Tolosa » Baso espezie eta frutarbolen saltzaileen postuak izan ziren eta baita lehenengo marrubi landareak ere.

PABLO ALBERDI

Atzoko azokan nobedade garrantzitsuren bat edo beste izan genuen. Atari kalean baso espezie eta frutarbolen saltzaileen postuak kokatu ziren. Erosle dezente ziren honen zain zeudenak eta atzo beraien beharrak asetzeko aukera izan zuten. Baso espezieen artean aipatzekoak Insignis pinua, Douglasa edo eta Kriptomeria izan ziren koniferen artean. Sagarrondo, udareondoa, gerezi ondoa, aranaondoa edo eta kiwia nagusitu ziren frutarbolen artean.

Berdura plazan ere izan genuen aipatzekoak. Aurtengo lehenengo tipula gorriaren landarea izan zen nagusi postu guztietan, eta hauekin, aurtengo lehenengo marrubi landareak ikusi izan genituen.

Zerkausian, berriz, joan den astean ikusitako lehenengo gazta berria izan zen berrikuntza bakarra.

» ATZOKO AZOKA

BERDURA

PLAZA	Mer.	Gares.
Erromeroa	4,00	6,00
Kalendula	2,50	-
Salbia	1,00	1,20
Krisantemoa	12,00	20,00

BERTAKO PRODUKTUAK

Intxaurrea	3,00	-
Babarrun zuria	2,50	4,00
Kiviva	3,00	-
Tomatea	2,00	4,00
Kalabaza	1,50	3,00
Baina	4,00	6,00
Erremolatxa	1,50	2,00
Tipula	0,80	1,00
Gazta berria	17,00	-
Ardi gazta	14,00	18,00
Artisau ogia	2,80	3,70

PRODUKTUEKOLOGIKOAK

Sagarra	2,00	3,00
Baratxuria	1,60	6,00
Arroza	1,90	2,00


hitza
bertako egunkaria

euskarazko egunkaria etxean jasotzeko, aukeratu zure eskualdea edo hiria eta egin harpidetza:

902-82 02 01

(Astegunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

gainera zozketak, promozioak, deskontuak eta hainbat abantaila izango dituzu.





12°
8°

GOIZA EURIA
ARRATS. EURIA
BEROENA 12°
HOTZENA 4°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aitzodon@tolosaldeko-hitza.info.
Anoetaidea: 687 410 022. anoetaidea@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 032. ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitzaidea: 687 410 118. leitzaidea@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

■ **Tolosa.** Ero Etxe elkartearen Haur Krosa 11:30etik aurrera Alde Zaharrean (Triangulo, Arostegieta, Gorriti, Kale Nagusia, Triangulo) infantil, kimu eta haurren mailatan.

■ **Tolosaldea.** Sahararen aldeko janari bilketa, ohiko lekuetan.

Erakusketa

■ **Alegia.** Marce Tenaren begiei buruzko margolanak ikusgai aste-artetik igandera bitarte Jubilatuen tabernan. Bizi-biziak eta denetan begia da jorratzen duen gaia.

■ **Tolosa.** Ana Jesus Ansorena tolosarraren buztin egosi artelanak ikusgai daude egunotan Lanbroa tabernan.

■ **Tolosa.** Geureak ere badira adingabe horiek, bakarrik dauden adin txikiko atzeritarren inguruko argazki erakusketa eta bisita gidatuak Kultur Etxean.

■ **Tolosa.** Jose Enrique Ceberioaren olio-lanak eta akuarelak ikus daitezke egunotan Itaie tabernan.

■ **Tolosa.** Juan Jose Agirre tolosarraren margolan erakusketa dago ikusgai egunotan Aranburu Jauregian.

■ **Tolosa.** Basoa erakusketa Aranburu jauregian dago ikusgai, Ingurugiro departamentuak antolatuta, La Caixaren babespean.

Zinema

■ **Tolosa.** Leidor aretoan, gaur: 17:00etan, *Lepel* (euskaraz), eta 19:30ean eta 22:00etan *Appaloosa*; bihar (ikuslearen eguna): 20:30ean *Appaloosa*.

■ **Villabona.** Gurea aretoan, gaur: *Solo quiero caminar* 19:30ean, eta *Lepel* (euskaraz) 17:00etan. Bihar: *Solo quiero caminar* 21:30ean.

GUARDIAKO FARMAZIAK Gaur

■ **Tolosa.** Olarreaga, J. Korreo kalea, 2. 943 67 01 28.

■ **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.

Bihar

■ **Ibarra.** Ugarte, M.T. Euskal Herria, 46. 943 67 32 74.

■ **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. 112..

■ **Irurtzun.** Mutiloa, A.M. San Martin, 5. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneri eta iritzien erantzunik.



Marie ume munstroaren istorioa

TOLOSA • Familia asko bildu ziren atzokoan Leidorren. Zer duzu negarrez, Marie? antzezlan eskaini zuen Marie de Jogh antzerki taldeak, hain zuzen Marie ume munstroa protagonistatzat duen lana. Ana Mea-

be eta Javier Renobales aktoreekin batera txotxongi-loak izan ziren nagusi taula gainean keinu soilzko lana eskainiz. Sei urtertik gorako umeei zuzendutako lana gustura ikusi zuten bertaratutakoek. R.CALVO

A Agurrak

agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak - ezkontzak jaioberriak - jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa



Urte askoan!

Unax Lizarraga (Zizurkil). Gaur 5 urte. Zorionak etxeko bihurriari. Muxuak familiaren partetik.



Urte askoan!

Nora. Ondo ospatu zure bosgarren urtebetetzea.

DBH amaitsu ondoren	Batxilergoa ikasi ondoren	Goi-Mailako Zikloen ondoren
Heziketa Zikloak Erdi-Maila 2 urte • Mekatronika • Makineria eta linea eroanbideen instalazioa eta mantentze-lanak elektronikarantz.	Heziketa Zikloak Goi-Maila 2 urte • Proiektu mekanikoen garapena • Mekatronika bidezko produktzioa(*) • Industri ekipoen mantentze-lanak(*) BERRIA: (*) IKASLE eta LAN 3 urteko irakasleekin elkarlanean	IMH Ingeniaritza Eskola 3 urte + arnau tekniko! • 3 urteko lan esperientzia • Ikasle eta lan bidezko metodologia • Irakasleekin elkarlanean lan egiteko irakasleekin • Bereziki ikasleekin elkarlanean dagoen ikasle europar ofiziala Titulua: Ingeniaritza

INGENIARITZAKO Ate irekiak:

Urtarrilak 24, larunbata – goizeko 11:00etan

IMH - Azkue zuzoa, 1 - 20870 Elgoibar - Tfnua: 943 74 41 32 - imh@imh.es - www.imh.es